| UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA<br><br>2008/07/23 | LEGAZPIKO UDALA | ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL<br><br>23/07/2008 |
|---|---|---|

**Organoa edo Batzordea:** Osoko Bilkura.
**Bilera-mota:** ohikoa.
**Eguna:** 2008/07/23
**Ordua:** Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:10
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**
Sotero Plazaola Odriozola, Alkatea.
Mikel Alzelai Zulaika
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain
Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia
Juan Ramon Larrañaga Mercero, EAko zinegotzia
Mª Aranzazu Arizmendi Gereñu, EAko zinegotzia
Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia
Iñaki Sanchez Gastañares, EB-Berdeak taldeko zinegotzia
Ana Salinero Maestre, zinegotzia atxiki gabea
Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia
Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEko zinegotzia
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

**Bertaratu ezina adierazi dutenak:**
Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJko zinegotzia

**Aztergaiak:**
1. Bidezkoa bada, joan den 2008/06/25eko bilkurari dagokion akta onartzea.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**
2. Bidezkoa bada, Mugikortasun Plana behin betiko onartzea.

**OGASUNA:**
3. Kreditu aldaketa.

**GIZARTE ZERBITZUAK:**
4. Legazpiko eguneko Zentroa erabiltzeko kontratuaren prezioa eguneratzea.

**ALKATETZA:**
5. Datu pertsonalak babestearen gainean EUDELek kode eredu gisa Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeentzat jardunbide egokien eskuliburura atxikipena onestea.

**Organo o Comisión:** Pleno.
**Tipo de Convocatoria:** ordinaria.
**Día:** 23/07/2008
**Hora:** Comienzo: 19:30 y final: 20:10
**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**
Sotero Plazaola Odriozola, Alcalde.
Mikel Alzelai Zulaika
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain
Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV
Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV
Juan Ramon Larrañaga Mercero, concejal de EA
Mª Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de EA
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA
Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-Berdeak
Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita
Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE
Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

**Personas que han excusado su asistencia:**
Juan Miguel Urrutia Castillón, concejal de PNV.

**Orden del Día:**
1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 25/06/2008.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**
2. Aprobación definitiva, si procede, de Plan de Movilidad.

**HACIENDA:**
3. Modificación de créditos

**SERVICIOS SOCIALES:**
4. Revisión de precios del contrato de uso y gestión del Centro de Día de Legazpi.

**ALCALDIA:**
5. Adhesión al manual de buenas prácticas para entidades locales de la Comunidad Autónoma vasca en materia de protección de datos personales aprobado por EUDEL.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

**MOZIOA:**

6. EB-Berdeak taldeak itzulerarako zuzentarauari buruz aurkeztu duen mozioa.

7. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

8. Eskariak eta galderak.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1. Bidezkoa bada, joan den 2008/06/25eko bilkurari dagokion akta onartzea**.

Bertaratutako guztiek aho batez erabaki dute 2008ko ekainaren 25ean egin zen bilkurari dagokion akta onartzea.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

**2. Bidezkoa bada, Mugikortasun Plana behin betiko onartzea.**

Gai hau pasa den Hirigintza Batzordean eztabaidatu zen. Segidan, mugikortasun iraunkorreko plana ondoko printzipioetan oinarritzen dela ekarri da gogora:

- Trafikoa antolatzea
- Aparkalekuak
- Oinezkoentzako eremuak eta ibilbideak
- Bidegorriak
- Garraio publikoa

Jendaurrean egon den epean Ana Salinero Maestre andreak, EAJ-PNV taldeak, Eneko Iriondo Eguren jaunak, Arrizabala Elkarteak eta EA taldeak aurkeztutako alegazioak eztabaidatu ondoren, Hirigintza batzordeak ondoko proposamena egin nahi dio Osoko Bilkurari:

1.- Alegazioen ondorengo puntuak onartzea:

.- Trafikoa mekanikoki mugatzea, Kale Nagusian dauden garajeetara iristea ahalbidetzea eta zamalanetarako eguneko ordu zehatzetan sartzea baimentzea.

**MOZIOA:**

6. Moción presentada por EB-Berdeak sobre la directiva de retorno.

7. Dar cuenta de los decretos dictados.

8. Ruegos y preguntas.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 25/06/2008.**

Por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar el acta de la sesión del 25 de junio de 2008.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

**2. Aprobación definitiva, si procede, de Plan de Movilidad.**

Este tema se debatió en la pasada Comisión de Urbanismo. A modo de recordatorio, el plan de movilidad sostenible se basa en los siguientes principios:

- La ordenación del tráfico
- El estacionamiento
- Los espacios y los itinerarios peatonales
- Las vías ciclistas
- El transporte público

Tratadas las alegaciones interpuestas por Dª Ana Salinero Maestre, EAJ-PNV, Don Eneko Iriondo Eguren, Arrizabala Elkartea y EA durante el periodo de exposición al público, la Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno:

1.- Estimar los siguientes puntos de las alegaciones:

.- Limitar los tráficos de forma mecánica y permitir accesos puntuales a garajes y a carga y descarga a determinadas horas del día en Kale Nagusia.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

.- Errepideko garraio publikoari irtenbidea emateko B aukera behin betiko onartzea.

.- Biribilgunean, espaloiaren gutxieneko zabalera 3,50 metrotan finkatzea.

.- Motor gabeko trafikoarentzat eremu egokitua eta bakarra zehaztea Mirandaola eta Telleriarte artean eta motordun ibilgailuentzat beste eremu bat zehaztea San Joan ermitaren eta Brinkola auzoaren artean baina bertan bizi direnentzat bakarrik.

.- Bergarara doan zirkularra Coeleko errotondara iritsi dadila.

.- B aukeraren barruan mikrobusaren geldialdi kopurua handitzeko aukera aurreikustea.

.- Apatxo liburu-denda dagoen inguruan igogailu berria jartzeko aukera aurreikustea Planean.

2.- Onartutzat eman ez diren gainerako alegazioak ez onartzea.

3.- Mugikortasun Iraunkorreko Plana behin betiko onartzea, aurreko puntuetan onartutako eta baztertutako alegazioak erabaki eta gero.

Jarraian Juan Ramon Larrañaga zinegotziak hartu du hitza eta aldeko botoa emango duela adierazi du. Onartu diren alegazioekin plana asko hobetu dela ulertzen du eta hurrengo erronka ezarriko diren lehentasunekin ondo asmatzea izango dela esan du.

Segidan Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza. Hark ere aldeko botoa emango duela esan du. Bere taldeak sei alegazio aurkeztu dituela eta batzordean aztertu ondoren horietatik bost onartuak izan direla azaldu du.

Ondoren, Ana Salinero zinegotziak hartu du hitza. Bere ustez igogailuek inpaktu handia sortuko dutela dio eta berak arrapalak edo eskailera mekanikoak proposatu dituela esan du. Abstenitu egingo da.

Bukatzeko alkateak hartu du hitza. Plana nola sortu zen eta prozesuaren nondik norakoa azaldu du. Herritarren parte-hartzea garrantzitsua izan

.- Tomar como solución definitiva la alternativa B de transporte público por carretera.

.- Definir unas anchuras mínimas de acera en la zona de la rotonda de 3,50 m.

.- Definir una zona mejorada y exclusiva de tráfico no motorizado entre Mirandaola y Telleriarte y otra zona con tráfico motorizado para residentes entre la Ermita de San Juan y Brinkola.

.- Aumentar el recorrido del circular de Bergara hasta la zona de la rotonda de Coel.

.- Prever dentro del plan la posibilidad de aumentar el número de paradas del microbús dentro de la opción B.

.- Prever dentro del plan la instalación de un nuevo ascensor en la zona de la librería Apatxo.

2.- Desestimar el resto de las alegaciones que no se han dado por estimadas.

3.- Aprobar definitivamente el Plan de Movilidad Sostenible en base a las alegaciones estimadas y desestimadas en los puntos anteriores.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga para anunciar su voto favorable. Estima que con las alegaciones aprobadas se ha mejorado mucho el plan y el reto está ahora en acertar con las prioridades que establezcamos.

Toma la palabra Ane Urkiola. Su voto también será favorable. Su grupo presentó seis alegaciones que fueron tratadas en la comisión de la cuales han sido aceptadas todas menos una.

Toma la palabra Ana Salinero. Fundamentalmente se refiere a los ascensores, opinando que suponen un gran impacto, ella solicitaba rampas o escaleras mecánicas. Se va a abstener.

Toma la palabra el Alcalde, empieza a hacer un poco de historia sobre como surgió el plan y de todo el proceso seguido, haciendo hincapié en la participación ciudadana y en las numerosas reuniones mantenidas. Termina diciendo que el



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

da eta bilera asko egin direla ekarri du gogora. Planak Legazpin bizi-kalitatea hobetzeko oinarriak finkatzen dituela esan du.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren ondoko emaitzarekin onartu da irizpena: aldeko bederatzi boto eta hiru abstentzio (PSE-EE taldeko bi zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzia).

**OGASUNA:**

**3. Kreditu aldaketa.**

Gai hau uztaillaren 15ean egin zen Ogasun batzordean azaldu zen, aldeko irizpena emanez. Zenbatekoa guztira 518.394,67 €ra iristen da eta horietako 330.000,00 € Patrizio Etxeberria kalea berritzeko dira eta 132.315,00 € udalaren lurzoru-ondarera doaz.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

**GIZARTE ZERBITZUAK:**

**4. Legazpiko eguneko Zentroa erabiltzeko kontratuaren prezioa eguneratzea.**

Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza. Gaiak Gizarte Zerbitzuen batzordearen aldeko irizpena du. Legazpiko eguneko zentroa erabiltzeko eta kudeatzeko kontratuak urtebete egin du eta bere egunean onartu zen baldintza-agiriak dioenaren arabera, prezioa berrikustea dagokio orain. Prezioa eguneratzeko Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Kontsumoko Prezioen Indizeak aurreko abenduaren gainean izandako igoera tasa hartzen da kontuan eta igoera hori aplikatzen da. Erreferentzi tasa hori Estatistikaren Euskal Institutuak argitaratu du.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

Plan sientas las bases para una mayor calidad de vida en Legazpi.

Sometida la cuestión a votación, se aprueba el dictamen presentado con nueve votos a favor y tres abstenciones (dos concejales del PSE-EE y la concejala Ana Salinero).

**HACIENDA:**

**3. Modificación de créditos**

Toma la palabra el Sr. Alcalde. Este tema cuenta con dictamen favorable de la Comisión de Hacienda celebrada el 15 de julio de 2008. El importe total es de 518.394,67 € y de ellos 330.000,00 € son para la renovación de la calle Patrizio Etxeberria, 132.315,00 € van para el patrimonio municipal del suelo.

Sometida la cuestión a votación, la misma se aprueba por unanimidad.

**SERVICIOS SOCIALES:**

**4. Revisión de precios del contrato de uso y gestión del Centro de Día de Legazpi.**

Toma la palabra el concejal del área Erramun Uribeetxeberria. El asunto cuenta con dictamen favorable de la Comisión de Servicios Sociales. El contrato de Uso y Gestión del centro de día de Legazpi ha cumplido un año y según el pliego aprobado, corresponde la revisión de precios; por tanto, la actualización de los precios supone la subida conforme a la Tasa de Incremento sobre diciembre anterior (TDA) del Indice de Precios al Consumo de la Comunidad Autónoma Vasca, editado por el Instituto Vasco de Estadística.

Sometida la cuestión a votación se aprueba por unanimidad de los presentes.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

**ALKATETZA:**

**5. Datu pertsonalak babestearen gainean EUDELek kode eredu gisa Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeentzat jardunbide egokien eskuliburura atxikipena onestea.**

Alkateak hartu du hitza. EUDELEK Euskal Autonomia Erkodegoko toki-erakundeentzako jardunbide egokien Eskuliburuaren edukiei atxikitzeko erabaki-proposamena igorri du. Deialdiarekin bidali da testua. Gidaliburu horren helburua datu pertsonalen tratamenduaren eremuan herritarrekin jarduteko moduari buruz langileei zein udalkideei informazioa emateko jarraibide praktikoak ematea da. Atxikipena borondatezkoa da.

**ALCALDIA:**

**5. Adhesión al manual de buenas practicas para entidades locales de la Comunidad Autónoma vasca en materia de protección de datos personales aprobado por EUDEL.**

Toma la palabra el Alcalde. EUDEL ha remitido una propuesta de acuerdo sobre adhesión al Manual de Buenas Prácticas para Entidades Locales del País Vasco, el texto se ha repartido con la convocatoria. El objetivo es que sirva de guía práctica para facilitar al personal y miembros de la corporación acerca de la manera de actuar en su relación con los ciudadanos y ciudadanas en todo lo referente al tratamiento de sus datos personales. La adhesión tiene carácter voluntario.

**MOZIOA:**

**6. EB-Berdeak taldeak itzulerarako zuzentarauari buruz aurkeztu duen mozioa.**

Iñaki Sanchez zinegotziak irakurri du mozioa eta, segidan, Osoko Bilkuraren aktari erantsi zaio.

Segidan, Ana Salinero zinegotziak hartu du hitza eta zuzentaraua aztertu duela jakinarazi du. Bere botoa aurkeztu den mozioaren aurkakoa izango da. Zuzentaraua ez da arrazista eta ez da xenofoboa. Bere ustez, Giza eskubideen 1948ko Deklarazio Unibertsalak dioena, Haurren eskubideen 1989ko Nazio Batuen Konbentzioak dioena eta Erkidegoko eta Nazioarteko Zuzenbidearen printzipio orokorrak errespetatzen ditu.

Jarraian, PSE-EE taldeko Jose Morcillo zinegotziak hartu du hitza. Aurkako botoa emango duela esan du. Laburtuz, aurkeztu den mozioa alarmista dela eta ez duela zuzentarauaren funtsa eta testuingurua aztertzen azaldu du. Espainiako Gobernua inmigrazio gaietan Europako Batasunean politika bakarra egitearen alde egon dela ekarri du gogora eta orain 27 prozedura daude. Zuzentarauari esker hainbat naziotan epe mugagabean atxilotzea debekatzen da baina hori ez da Espainian gertatzen. Aplikatuko diren prozedurek berme bat eskain dezatela eta dauden mafiekin amaitzea nahi dutela dio.

**MOZIOA:**

**6. Moción presentada por EB-Berdeak sobre la directiva de retorno.**

El Concejal Iñaki Sánchez da lectura de la moción, incorporándose la misma como anexo al acta.

Toma la palabra la concejala Ana salinero, señala que ha hecho un estudio sobre la directiva. Su voto va a ser contrario a la moción. La directiva ni es racista ni mucho menos xenófoba, respeta la Declaración Universal de Derechos Humanos de 1948 y la Convención de la ONU de 1989 de los derechos del Niño, así como los principios generales del Derecho Comunitario e Internacional.

Toma la palabra el concejal del PSE-EE José Morcillo. Anuncia su voto en contra. A modo de resumen, dice que es una moción alarmista y no entra en el fondo ni en el contexto. Señala que el Gobierno de España siempre ha estado a favor de una política común en materia de inmigración en la Unión Europea, ya que ahora hay 27 procedimientos. Gracias a la Directiva se prohibe la detención por tiempo ilimitado que rige en algunos países, no es España. Son partidarios de que los procedimientos aplicables sean garantistas y de que se acabe con la mafias.

Ondoren, Juan Ramon Larrañaga jaunak hartu du hitza. Bere taldearen ustez, zuzentarauak ez ditu etorkinen oinarrizko eskubideak bermatzen eta ez ditu etorkinak babesten; atzerapen bat eman da gai horietan. Horrelako neurriekin hainbat Gobernuk etorkinak jazarri eta atxilotzeko aitzakia izan nahi dute. Aldeko botoa emango du.

Segidan, Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza. Bere ustez, zuzentarauak giza eskubideak urratzen ditu eta hainbat alderdiren politika klasista uzten du agerian.

Mozioa erabakitzeko botoetara jo ondoren hauek izan dira jaso diren emaitzak: aldeko 9 boto (alkatea, Mikel Alzelai zinegotzia, Erramun Uribeetxeberria zinegotzia, EAJ taldearen 2 boto, EA taldearen 3 boto eta EB-Berdeak taldeko zinegotziaren botoa) eta aurkako 3 boto (PSE-EE taldearen 2 boto eta Ana Salinero zinegotziaren botoa).

**7. Luzatu diren dekretuen berri ematea.**

Alkateak luzatu diren dekretuen berri eman du.

**8. Eskariak eta galderak.**

Juan Ramon Larrañaga jaunak hartu du hitza. Txabolak egiteko lizentziak emanez luzatu diren 235 eta 236 zenbakidun dekretuei dagokienez, Hirigintza batzordean ere bere harridura azaldu zuela ekarri du gogora. Espedieneak aztertu ditu eta ez direla Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari dagozkion txostenak eskatu egiaztatu ahal izan du. Gaia nola dagoen jakin nahi du.

Alkateak horren gaineko informazioa hurrengo bozeramaileen batzordean emango duela erantzun du.

Alkateak, arratsaldeko 20:10 direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga, su grupo estima que la directiva supone un retroceso en materia de protección y garantía de los derechos fundamentales de los inmigrantes. Hay Gobiernos que pretenden aplicar lógicas de persecución y encierro con este tipo de medidas. Votará a favor de la moción.

Toma la palabra Erramun Uribeetxeberria, desde su perspectiva supone una gran vulneración de los derechos humanos y deja al descubierto la política clasista de determinados partidos.

Se aprueba la moción con 9 votos a favor (el Alcalde, el concejal Mikel Alzelai, el concejal Erramun Uribeetxeberria, 2 votos del PNV, 3 votos de EA y 1 del concejal de EB-Berdeak) y 3 en contra (2 del PSE-EE y la concejala Ana Salinero).

**7. Dar cuenta de los decretos dictados.**

El Alcalde da cuenta de los decretos dictados.

**8. Ruegos y preguntas.**

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga. Con relación a los decretos 235 y 236 concediendo licencias para bordas, ya en la Comisión de Urbanismo mostró su extrañeza. Ha analizado los expedientes y comprobado que no se ha solicitado el correspondiente informe al Departamento de Agricultura de la Diputación Foral. Quiere saber como está este asunto.

El Alcalde contesta que dará toda la información en Junta de Portavoces.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 20 horas y 10 minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

| | |
|---|---|
| Akta hau 2008/09/24(e)an egindako bileran onartu zen:<br>☐ bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.<br>☐ baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak. | Este acta fue aprobada en la sesión del día 24/09/2008:<br>☐ en su integridad, sin ninguna objeción.<br>☐ si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas. |
| Jon Mikel Garagarza Roteta<br>Idazkaria | Sotero Plazaola Odriozola<br>Alkatea |



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net